

VI. «RIKARDO ARREGI» KAZETARITZA SARIA

AZKEN ERABAKIA

VI. «Rikardo Arregi» Kazetaritza Saria epaitzeko xedez Andoaingo Udalak izendatutako Epaimahaiak, M^a Pilar Collantes Ibáñez, Andoaingo Alkatea eta Mahaiburua dena, Gaizka Aranguren Urrotz, Joxe Aranzabal Mendizabal, Nerea Azurmendi Zabaleta eta Hasier Etxeberria Canales eta Idazkari lanetan eta, beraz, hitzez baina hautespiderik gabe ihardun duen Jon Unanue López-ek osatu duten Epaimahaiak alegia, Azken Erabakia ezagutzera ematea akordatu du, aurrez, honako adierazpenak egin ondoren:

1.- «Rikardo Arregi» Kazetaritza Sarian aurten izan dugun berrikuntzarik nabarmenena Epaimahaia bera izan da, ia erabat berritua izan baita iazkoaz geroztik. Horregatik, lehenik eta behin adierazi beharra daukagu zordun gara eta aurtengo epaimahaikideok lehenengo bost edizioetako Epaimahaia osatu zuten kideekin. Zordun gara, besteak beste, beren ihardunaz ildo garbia zabaldu dutelako. Bihoakie, bada, hemendik gure eskerona Elixabete Garmendia, Josemari Otermin, Jesus Etxezarraga eta Joserra Garzia andere eta jaunei.

Esanaren haritik, garbi dago VI. edizio honetan Epaimahaia aurreko edizioetako eginbideetan barrena ibili dela eta azken edizioetan bezalaxe bere begiez egin duela «Sekzioa», «Baloraziozko kazetaritza» eta «Erreportaia» ataletako jarraipen eta hautaketa lana.

Beraz, euskarazko kazetaritzan barrena luze-zabalean ibili da hainbat hila-betez, lehen hiru atal horietako sariak erabakitzerakoan izan zitzan aztermenean saria jasotzeko adinbateko kalitate maila eta mamiz argitara emanak zitezkeen lan guztiak. Behin egunkari eta aldizkari denak arakatu eta azterturik eman zien hasiera sariak erabakitzeko eztabaida lanei. «Herrietako aldizkariak» atalean, berriz, urtero bezala lanak egileak berak

aurkezteko irizpideari eutsi diogu, eta, denetara, larogeita hamaika lan aurkeztu dituzte herrietako aldizkarietako kazetariak.

2.- Aurtengo edizioak badu, alabaina, oso aparteko bereizitašunik, eta hori ez da besterik Rikardo Arregi bera eta sari honi dagokionez bere kazetari iharduna inoiz baino ozen eta nabarmenago oroitaraztea baino, gaur betetzen baitira 25 urte Rikardo hil zenetik. Urteurren horren garrantzia ez datza, ordea, omenezko eta goratarrezko ospakizun soilean, ezta gutxiagorik ere. Sari honetako lehen bost edizioetako Epaimahaiaren Azken Erabakiek, urtez urte, euskal kazetaritzaren gaur eguneko iharduna eta ihardun horren ezaugarri, beharkizun eta zirkunstantziak izan dituzte hausnargai, eta horien argitara ahalegindu da itxuratzen bere iritziko euskal kazetaritzak etorkizunean gihartu beharreko zantzu nagusiak.

Baina aurtan, Sari honen izena eta izana goraipamenezko topikoek estali eta beren benetako funtsa eta arrazoia erabat lurperatzeko zorian zeudenean, hara non daukagun 25. urteurren honen aukera berriro *etxearen oinarri sendoak* ikustera itzultzeko, eta gogorarazteko zein den Rikardo Arregi euskal kazetaritza modernoaren aintzindari eta eragile iriztearen arrazoia. Eta ez dago Rikardok idatziriko artikulua eta idazlan ugarietarik zertxobait irakurtzea baino hobeagorik, sari honen bidez suspertu eta eragin nahi ditugun euskarazko kazetaritzaren ezaugarriez jabetzeko.

3.- Hemen bere kazetari idazlanak baino ez ditugu kontutan hartuko, adierazteko egunerokoaren zurrunbiloan ezinbestean presaka idatziz bizi zen Rikardo kazetariari zerion idazkera bizi, zorrotz eta artezak, mamian hiru ezaugarri nagusi azaltzen dituela: bere laburrean, hausnarbide sakoneko erreferentzia intelektual eragilea, autokritikazko aburubidea ondo ernerik zeukana; bere zorrotzean, errealitateari oso loturiko ikuspegia, ameskeria eta itsukerietatik urruti zebilena; eta, azkenik, itzulingururik gabeko bere adierazi eta azalpen gardenetan bere jokabidearen iparra libertatezko eta lotura itsurik gabeko iharduna izatea.

Hiru ezaugarri horiek zutoin izan ziren bere kazetari ihardunean, eta oinarri izan dira geroztik gainean gorpuztu den euskal kazetaritza modernoan. Gaur, beste ezein hausnarketa egiteari baino egokiago eta eraginkorrago iritzi diegu oinarri eta ezaugarri horiek azalera ekartzeari eta gogorarazteari, eta are zilegiago, alderdi batetik ala bestetik garai hartan bezain bizirik dirauen bere artikulu askotxo irakurtzeari.


4.- Horregatik, gaur, epaimahaikideok badugu euskarazko kazetagitzaaren alorrean egin beharreko eskerik, oso bereziki zabaldu nahi dieguna ogibidera datozen kazetari berriei: balia gaitzen urteurren honen aukeraz euskal kazetagitzaaren satora itzuli bat egin eta zutabe zaharren tartean Rikardok ipinitako oinarri haien betiereko arnasberriez euskal kazetagitzaaren hauspoa eraberritzeko, Rikardo Arregik ordu luzez landutako kazetari erdua ezin baitugu zimeltzen utzi.

5.- Azkenik, sarien berri eman aurretik, Rikardok 1969. urtean idatzirik azken-azken artikuluetariko bat ekarri nahi dugu gogora, *Andoaindarra naiz* izenburukoa. Horrela dio pasarte batean: “Gure herria, gure gizonetan eta gertaeretan, herri apala izan da historian zehar. Aita Larramendi eta O'Donell-ek galdu zuen bataila kenduz gero, ez da ezer handirik gelditu. Ez dago, beraz, xoko herrizalekeriarentzat lekurik. Zorionez. Zorionez, herri humila, izen handirik gabekoa da gurea. Horregatik maite dut gehiago, horregatik nago fier eta harro nere jaioterriaz. (...)”.

Pasarte hori idatzi zuenez geroztik ezer handirik gelditu da Andoainen, andoaindarren eta euskaldunen kontzientzian: Rikardo Arregi bera, bere gizatasuna eta bere obra, bere obra kazetaritzari gagozkiolarik, edota gaur aipatu ez ditugun pentsalari eta eragile alderdiei. Egon bedi harro, beraz, Andoain umil hori 26 urte besterik ez zuela betirako irabazi zuen semeaz.


6.- Gatozen orain, bai, aurten sarituak izan diren kazetari eta lanen aipua egitera.

Aurren-aurrenik esan dezagun, ordea, aurten ere atal guztietan ez dela erabakia ahobatez hartzerik izan, eta, kasuren batean, lehia handia izan dela saritzeko zorian zeuden lanen artean. Ez beza inork pentsa, beraz, ezinbestean bide errazetik emandako sariak direnik. Uneoro izan ohi du gogoan Epaimahaiak sariak hutsik uzteko oinarriek damaioten aukera.



7.- Bada, horratio, irizpide bat urtero-urtero gogorarazi ohi duguna, eta, aurrerantzean ere, argi eta garbi azpimarratuko duguna: *«huts-hutsik, idazlanen eta sekzioen kazetari balioa hartu da kontutan, beste edonolako kontsiderazioen gainetik eta aurrerago aipatzen den beste zenbait irizpideren kalterik gabe. Beste hitzetan esanda, euskarazko prentsa normalduan inolako homologazio arazorik gabe leku propioa izango luketenak saritu dira».*

8.- Honako hau da, hori guztia kontutan hartuta, sariei dagokienez Epaimahaiak bere egiten duen erabakia:



8.1.- «Herrietako aldizkariak» ataleko saria, 200.000 pezetaz hornitutakoa. Aipatu irizpideez gain erabakiorra izan da saria ematerakoan, iturri anitzetako informazioa bilduz lana ildo berean planteamendu periodistiko apartaz osatua izatea, eta eredugarri gertatzea ez bakarrik herri aldizkariarentzat baizik eta zabalkunde orokorreko edozein komunikabide idatzirako.

☞ Saritutako idazlana: *«Urbiako fondaren isiltasunean protagonistak mintzo»*, **KONTZEJUPETIK** aldizkariaren 11. zenbakian argitaratua, 1993. urteko irailan.

Autorea: **Iñigo Arregi** jauna.

8.2. «Sekzioa» ataleko saria, 400.000 pezetaz hornitutakoa. Kasu honetan, saritu beharrekoa «*mailarik altuena lortu eta gorde duen sekzioa*» izan behar dela diote, hitzez hitz, Andoaingo Udalak ezarritako oinarriak. Saritutako sekzioa epaimahaikideen iritziz indar eta gaztetasun handikoa da, freskotasuna dakarkiona kazetaritzari, eta naturaltasun handiko elementuez osaturikoa. Epaimahaikideen iritziz, saritutako sekzioak kazetari ikuspegitik sortzez duen helburua bete-betean erdiesten du.

✍ Saritutako sekzioa: *Noski Jator* komikia, **Euskaldunon Egunkariaren Nafarkaria** gehigarrian argitaratua.

Sekzioaren egile: *Zaldi Eroa* goitizenpean **Patxi Huarte** jauna.

9.3. «Baloraziozko kazetaritza» ataleko saria, 400.000 pezetaz hornitutakoa. Lehenago aipatu irizpideez gain, komenigarri deritzogu, urtero egin legez, oinarrietako laugarrenak atal honetako sariari buruz dioena hitzez hitz emanda gogorarazteari: «*fenomeno puntual eta konkretuen azalpenetatik areago doazen artikulua izan beharko dute hauek, nahiz eta datuak ematen dituzten eta, beste zenbaiten artean, gertakizun konkretuetatik abiatuz egindako lanak izan. Sari hau erabakitzerakoan, Epaimahaiak oso kontutan hartuko ditu egileak aztergaiari buruz egiten duen hausnarketa edo balorazio propioaren sakontasuna eta zorrotasuna*». Erreferentzia gisa sarritan esan izan dugu, berau izan zela Rikardo Arregik hain jori landu zuen alorra. Aurten saritutako lana erreferentzia horri bete-betean egokitzeaz aparte, aurreko edizioetan saritutako lanen kalitate eta ontasun maila bikaina sendotu eta berrestera dator.

✍ Saritutako artikulua: «*Liliput debekatuak*» izenburukoa, **Argia** astelehenaren 1993ko urtekarian argitaratua.

Autorea: **Koldo Izagirre** jauna.

9.4. «Erreportaia» ataleko saria, 400.000 pezetaz hornitutakoa. Oinarrietako bostgarrenak honela dio atal honi dagokionez: «*sari hau erabakitzerakoan Epaimahaiak besteak beste eta batez ere, estiloa, orijinaltasuna, datu-bilketaren exhaustibotasuna eta zailtasuna hartuko ditu kontutan*». Nazioarteko mailan pil-pilean zegoen gaiari buruzko oso erreportaia bikaina da irabazleak landu duena, eta neurri egokian baino ez du ukittu erreportaia gaiari zegokion bortizkeriaz. Euskal kazetaritzan hain urri landutako nazioarte mailako erreportaigintzari ekarpen handia egin dion lana da saritutakoa.

✍ Saritutako erreportaia: *Kroazia samina*, **Euskaldunon Egunkarian** argitaratua 1993. urteko abenduaren 19, 21, 22, 23, 24 eta 26ean.

Autorea: **Juan Luis Zabala** jauna.

Honaino, bada, VI. «Rikardo Arregi» Kazetaritza Sariari dagokion Azken Erabakia, epaimahaikide guztiok ontzat eman eta sinatu duguna gaur, Andoaingen, mila bederatzehun eta larogeita hamalauko uztailearen hamarrean.

Izpea.: Mª Pilar Collantes Ibáñez

Izpea.: Joxe Aranzabal Mendizabal

Izpea.: Nerea Azurmendi Zabaleta

Izpea.: Hasier Etxeberria Canales

Izpea.: Gaizka Aranguren Urrotz

Izpea.: Jon Unanue López